



ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSAK

Herri Musikaren 18. Jardunaldiek erraldoi eta buruhandien konpartsak izango dituzte aztergai. Martxoaren 16an izango den mintegian jatorri ezberdineko ikerlariak gaiaren inguruan egin dituzten lanak aurkeztuko dituzte.

Emilio Xabier Dueñas

Adin heldu batetara iritsi eta haur-tzaroko oroitzapenak garuna deitzen dugun horretan pilatzen direnean, denborako nebulosa batek lausotuta pertsonaia batzuk ikus ditzakegu, musika-riak lagun, herriko kaleak zeharkatzen hainbat ospakizunetan. Batzuk, bertikaltasuna austen duten irudi luzeak; besteak, proportziozgaindiko karikatura itxurako buruak. Batzuk baldar mugitzen diren bitartean, besteak biharko egunik izango ez balitz bezala egiten dute korri maxkuriekin beldurtuta ihesi, beraien artean muturkatuz, doazen haurrak joaz.

Iragan bateko irudiak, baina baita orain batekoak ere... Behin eta berriro hil eta berpiztuz, historiako garai bakoitzeko gizarteak ezarritako aldaketak jarraituz aurrez-aurre dauden emozioak arrapatu nahian dabilzan txikiak gozarazten dituzten, hainbeste maite ditugun erraldoi eta buruhandiak dira.

Baina, non dago pertsonaia hauen sorrera. Dokumentu zaharrenetako batzuk XIV. mendean bazirela esaten dute geroago ugariago eta zehatzago ospakizun ezberdinetan agertzen badira ere: Corpus Christi jaiean eta errege boterearekin lotutako gertakizunetan bereziki.

Prozesio eta desfile haietan ez ziren bakarrik ibiltzen. Askotan, ez dakigu gaur egungo irudiekin bat datozen, baina erraldoi, gigantila edota buruhandiek, bidelagunak izaten zituzten: "taraska", herensugea, buru bakar edo ugariko sugea, etabar. Jarraigoa Elizako ordezkariak, dantzariak eta hiriaren maila administratiboak bal-

dintzatutako gainontzeko segizio ugari eta konplexuak osatzen zuten.

Orduko irudikatzeko era haren, garai bateko botere zibil eta eliztarraren nabarmenkeriara hurbiltzeko joera haren, arrastorik ia geratzen ez bada ere, hainbat arrazoiengatik izandako gorabeherek hiritarrek zenbait irudikapen gauzatzeko duten beharrari buruzko aztarnak agerrarazten dituzte. Horrela, oraindik indarrean egon daitezkeen lehenengo "español", "turko" edo "moro", "beltz", "txinatar", "ijito" edo "frantses" haiek "errege" edota herrikoi, eliztar edo antzinako lanbide-etakoak diren era guztietako pertsonaiak izatera pasa dira.

Azken urteetan geografiako leku ezberdinetan bizia, bizitza iragankor eta unekoa, hartzen duten pertsonaia bizigabe hauen bidez gauzatu den suspertzeak haien inguruko Jardunaldiak eta gaia aztertu duten hainbat ikerlarik kontatutako historia aurkezteko balio digu:

- María Elisa Sánchez Sanz, Zaragozako Unibertsitateko irakaslea, "Gigantes y cabezudos. Orígenes y pervivencias" izenburuko txostena aurkeztuko du. Greziar mitologian sartuko gaitu bertan ageri diren pertsoanaien historia gainbegiratu eta Aragoin gaur egun nola agertzen diren azalduz.

- Roldán Jimeno Aranguren, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea. "Iruñeko Konpartsak: aurrekariak, sorrera eta bilakaera historikoa" izenburua duen txostena XIX. mendean sortu zen konpartsak horretan zentratuko da, bere aurrekari historikoetan eta Euskal Herriko beste konpartsekin izan duen harremanean eta haiengan izan duen eraginean.

- Bienve Moya Domènech, Barcelonako irakaslea, "Raíces culturales de las figuras festivas, los gigantes" aurkeztuko du. Irudi hauek iraganean izan zuten sinbologian zehar bidaiatzeaz gain, aurkezpen honetan Kataluniako gaur egungo irudikapenak azalduko ditu.



Sebastian Errasti "Xaxurra", Inaxio Goenaga "Arbe" eta Jabier Goenaga "Arbe" Azpeitiako erraldoi eta buruhandien konpartsarekin. (Argazkia: María Guadalupe Errasti)

HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

HM NEGUKO KONTZERTUA

2019ko otsailaren 16an - 18:30 - Auzokalte Elkartean - 5 euro

CAUBET GOGOAN



Maskaradak, pastoralak, dantzak, abeslarien ahots zorrotzak eta taldeen polifoniak izan dira Zuberoako herri kulturaren ezaugarri nagusiak. Soinu-joleen artean azken garaietan xirulariak izan dira nagusi, haiek izan baitira ia musikari bakarrak herri ekintza gehienetan. Ez da hain ezaguna eta oso jende gutxik ezagutzen du gaur egun Zuberoan ia galdua dagoen txanbela izeneko soinu-tresna. Hau antzinatik Zuberoan, Pirinioetako magalean, erabili izan da eta nagusiki artzainak izaten omen ziren txanbela jotzaileak.

Txanbela, Euskal Herrian erabili izan diren herri oboetako bat da. Ezaugarri eta egitura akustikoaz oboe bat da, dultzaina eta nafar gaita bezala. Mota berekoa da Aralar mendiko artzainen sunpriñua ere. XX. mende hasierako Aralar inguruko artzainek erabiltzen zuten Sunpriñua izeneko soinu-tresna bezala, Zuberoako artzainek txanbela erabiltzen zuten. Bi kasu hauetan, sunpriñuaren eta txanbelaren musikan, “artzain-musikaren” bi eredu esanguratsu eta garrantzitsu agertzen direla esan dezakegu. Bietan doinuak aire edo metrika lasaian, malguan eta librean jotzen ziren; bietan joleen interpretazio libre eta sortzaileak joaldi bakoitza partikularra egiten zuten.

Txanbelaren musikan antzinako euskal

musikaren estilo eta joera berezi bat mantendu da; doinu, neurri eta erritmo aldetik gaur egun gure herri kantutegian dugun musika era zaharrenetarikoa bat, ezagutzen dugun zaharrena ez bada. Horregatik, guretzat txanbela ez da soinu-tresna bat bakarrik, musika egiteko modu bat ere bada. Zuberoan bada esatera zahar bat musika egiteko estilo honen nolakotasuna argitzen duena: “txanbela bezala ari da kantatzen”.

Pierre Caubetek erabiltzen zuen eskala, interbalika, anbitoa eta tesitura oso gertu zeuden albokari zaharrek erabiltzen zituztenetatik. Txanbelak, eta guretzat konkretuki Pierre Caubetek bere musika txokoan, antzinako forma horietako bat mantendu du. Berak ondo bereizten zituen bi mundu horiek eta behin baino gehiagotan demostratu zuen hori, kantu bera bi estilo eta formetan kantatzeko gai zela erakutsiz.

2018an proiektu berria argitaratu dugu: PIERRE CAUBET “PETHI XUBUCO ARHANE”. Honetan egiten dugun txanbelaren aurkezpen orokorra, hiru jatorri ezberdinetakoak diren lan eta materialekin osatuta dago:

1. 1970. hamarkadan Iruñeko Gaiteerok egindakoa: idatziak eta diskoa.

2. 1984-1985ean Juan Mari Beltranek bildutakoa. Idatzia, audio grabazioa eta

filmazioa.

3. 1986an Marcel Bedaxagarrek audioan grabatutakoa.

CAUBET GOGOAN

Argitaratu berria den proiektu hau kontuan hartuta, modu ezberdinetan Lakarriko musikari aparta hau ezagutu zuten hiru lagun elkartu dira; Pierre Caubeti buruzko gogoeta bat egiteko eta Caubeten musikan eta bizitzan oinarritutako zuzeneko emanaldia prestatzeko elkartu ere.

Jean Mixel Bedaxagar, Titika Rekalt eta Juan Mari Beltran dira proiektu berri honen sortzaileak eta bertan parte hartzen dutenak.

Hirukote honek Caubeten omenez prestatutako CAUBET GOGOAN titulua duen emanaldi hau hiru osagaiz osatuta dago: Titikaren narrazio poetikoa, Jean Mixelen kantatzeko maisutasuna eta Beltranen txanbela, alboka eta xirolarri joaldiak. Lakarriko txanbelariari hartutako abesti, joaldi eta hitzekin hiruen artean landu eta prestatu dute doinuak, hotssez, poesiaz eta maitasunez osatutako emanaldi hunkigarri hau.

Jean Mixel Bedaxagar zuberotar musikari ospetsuak ondo ezagutu zuen bere gatzaroan 1960 hamarkadako Zuberoako herri musikari, abeslari eta dantzari belaunaldia, eta horien artean Pierre Caubet. Emanaldi hau prestatzeko ordu asko pasa ditu Jean Mixelek Caubeten grabazioak entzuten eta berarekin kantatzen; modu musikal hori bereganatzen.

Titika Rekaltek bere haurtzaroan ezagutu zuen bere aitona-osaba zen Pierre Caubet. Asko maite zuen bere familiakoa zen gizon berezi hau eta maitasun horretatik idatzi du proiektu honentzako narrazio eder bezain sakon bat, emanaldi osoa modu poetikoan josiz.

Juan Mari Beltranek 1985ean ezagutu zuen Pierre Caubet aurrez aurre. Aurretik ezagutzen zuen bere bizitza musikala irakurritik eta grabazioak entzunez. Juan Marik askotan erabili eta zabaldu du bere disko lanetan Caubeti ikasitakoa.

DULZAINEROS HERMANOS RAMOS

(Segovia)

Sei anaik osatutako dultzainero talde hau 1983an sortu zen. Segoviako diputazioaren eskolak Cuellarren zuen Joaquín Gonzálezek zuzendutako luzapenean José eta Alfredo dultzaina klaseak hartzen hasi ziren.

Beraien musikazaletasun handiak eta gurasoen (Ricardo eta Ana M^a) erabateko laguntzak Alberto, Ricardo, Luis eta, geroago, Ana ere ikasten hasita ekarri zuen. Oinarrizko errepertorioa osatu bezain laster herrietako festetan jotzen hasi ziren. Lehenengo emanaldietan bi dultzaina eta danborrarekin jo zuten, laster hiru dultzaina, danborra eta bonbo-platerak jotzera paseaz. Ezagutza teknikoak eta errepertorioan sakondu ahala duan jotzen hasiko dira, errepertorio herrikoia nabarmenduz beraien estilora egokitutako modako abestien ondoan. Dultzainero segoviar esanguratsuenak ezagutu ahala, haiengandik ikasi zuten, zuzenean edo grabazioen bidez, beraien jotzeko era eta errepertorio herrikoia. Horrela, Mariano Contreras, A. Marazuela, El Silverio, Luís Barreno, S. Vaquerizo, Antonio Gil, Facundo Blanco, Paulino Gómez "Tocino", G. García, Los Mellizos, eta beste dultzainero ugari beraien maisu izan direla esan daiteke.

Cuellarren *A.C. Amigos de la música* sortu zenean hizkuntza musikala eta beste soinu-tresna batzuk jotzen ikasi zuten (Luísek saxo tenorra, Ricarrek klarineta, Alfredo saxo altoa eta Anak zeharkako flauta) Almudena Ruíz eta Miguel Yoldi irakasleekin. Aldi berean herriko musika bandan jotzen hasiko dira. Luís eta Ricar Valladoliden bateria ikasten hasiko dira eta geroago perkusioa Segoviako kontserbatorioan. Musika estilo ezberdinetako taldeetan jotzen ariko dira; rock, antzinako musika, dantza taldeak, antzerkia, txarangak, orkestrak, perkusio taldeak, etabar.

1995ean Udal Musika Eskola sortu zen Cuellarren. Ricardo eta Alfredo bertan perkusioa eta dultzaina erakusten hasi ziren. Gaur egun, Ricardo Segoviako kontserbatorioko dultzaina irakaslea da, Luís perkusioakoa



Cantalejoko musika eskolan eta Alfredo dultzainakoa Cuellarko "Cecilio de Benito" musika eskolan.

Hogeita hamar urte hauetan dultzainero lanak nagusiki Segovia probintzian eta inguruan bete dute jaialdietan, dultzaina topaketetan eta kultura herrikoiarekin lotutako hainbat ekitalditan joaz.

Beraien ibilbidean zenbait musika talderekin elkarlanean aritu dira: Grupo de Danzas Bieldo, La Ordiga, Tradinova, Castijazz, Banda de Música de Cuellar, Armando Ruido, Grupo de Teatro Zereia, Grupo de Marionetas "La Pícara Locuela",...

Dultzaina eta herri musikaren inguruko jaialdiak antolatzen lagundu dute: Pajares de Fresno, Valdearnés, Folkuéllar eta Casla esate baterako.

2012an Carlos A. Porrok argitaratu zuen "Repertorio segoviano para dulzaina, tonadas y canciones recogidas por Manuel García Matos en Abades, Bernardos y Nava de la Asunción en 1.951" lanean sartua dagoen CD bikoitza grabatu zuten.

Luis Ramosek, Ricardo eta Alfredok lagunduta, Segoviako Tierra de Pinareseko herri musika biltzen duen "Cancionero de la memoria" disko-liburua egin zuen 2015ean. Eta 2017an

Víctor Sanz Gómezekin "Repertorio musical segoviano en los fondos del archivo de investigación folklórica de la sección femenina" CDa atera zuen.

Dultzaina talde herrikoiaz gain, beste hiru formato ezberdineko taldeak ere kontzen dituzte:

·"Ministriles de Cuéllar": antzinako musikako errepertorioa jotzen dute garaiko soinu-tresnekin Marco Mantovaniren zuzendaritzapean.

·"La orquestina de la Abuela Pina": XX. mendearen lehen erdiko orkestinetako errepertorioa ematen du.

·"Homenaje a A. Marazuela": ikusentzunezko muntaia hau segoviar folkloristaren bizitza eta lanean oinarrituta dago.



kontzertu honen
laguntzaileak:



IDIAZABALGO TRONPA

Tarteka Soinueneara bisitan etortzeko joera duenak ongi dakien bezala, museoko erakusketak bere bizitza du. Hori dela eta, aldatuz joaten da. Orokorrean aldaketa txikiak izaten ditu, baina tarteka handiak ere izaten ditu. Orain dela hamar urte bisitan etorri zen hark gaur etorrira sekulako aldea somatuko luke.

Oraingo honetan, erakusketan idiofonoei eskeintzen diegun atalean soinu-tresna berri bat jarri dugu ikusgai. Ez da handia, baina bai zaharra. Euskal Herrian, Europa eta munduko beste leku askotan bezala, garai batean bazter ugaritan jotzen zen tronpa, edo nahiago duenarentzat musugitarra, bat da.

Erakusketan ikusgai jarri dugun tronpa hau Idiazabalen bizi den Lontxo Ugartek ekarri zuen Soinueneara. Berak azaldu zuenez Idiazabalgo Atxurbi mendian topatu zuen Oregi izeneko artzain borda batean 2012an. Dirudienek ormake harrien arteko zulo batean gordeta zegoen. Borda hartako azken artzaina 2004an hil omen zen.

Argazkian ikus daitekeen bezala, tronpak mihia falta du, soinu-tresnako atal ahulena, eta Gipuzkoa eta Nafarroako zenbait gaztelutako indusketetan azaldu diren tronpa batzuen antzekoa da.



Idiazabalen topatutako tronpa. SNN

PIERRE CAUBET HM BILDUMAN


Herri Musika Bilduman CD-DVD-liburu berria argitaratu du Soinueneak. Oraingoan Aztarna, Iruñeko Gaiteroak, Sü Azia, Euskal Kultur Erakundea eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan dugu.

Lan honen edizioaz arduratu den Juan Mari Beltranek aurkezpenean azaltzen duen bezala, lehenago egin diren hiru lanen bilketa da honen oinarri eta funtsa. Lan haiek Iruñeko Gaiteroek, Juan Mari Beltranek berak eta Marcel Bedaxagarrek 1970 eta 1986 artean egindakoak dira. Urte haietan egindako bilketek garrantzi handia dute, izan ere, gaur egun gure inguru eta garaiko musikan ohikoak ez diren hainbat elementu agertzen bait dira; horien artean ditugu txanbela izeneko soinu-tresna eta berekin, zein ahotsarekin, Pethi Xübüko Arhanek egiten dituen doinuak.

Argitalpen honek Lakarriko (Zuberoa) musikariari hartu zitzaizkion audio grabazioak ditu CD eta DVD banatan. Horretaz gain, 96 orrialdeko liburuxka du. Bertan Iruñeko Gaiteroek *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkarian argitaratutako *Caubet Chubuko Arhan: Txanbela eta khantoriak* (I eta II) artikulua Junes Casenave-Harigile zenak euskaratu zuen bezala ageri da, Zuberoako euskalkian. Lan hau osatuz Titika Rekalt, Jean Mixel Bedaxagar eta Juan Mari Beltranek egindako idatziak daude. Horietan Pierre Caubet zein zen hobeto ezagutzeko aukera izateaz gain errepertorioaren azalpena ere badago.

PIERRE CAUBET

“Pethi Xübüko Arhane”



Edizioa:
Juan Mari Beltran Argiñena

Herri Musika Bildumako azken argitalpenaren azala. SNN

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 460

Antolatutako taldeak: 23

Bisitari kopurua otsailera arte: **60.548**

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 18.737

Soinuenea - Herri Musikaren Txokoa



Tornola kalea, 6 - 20180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.eus

www.soinuenea.eus



OIARTZUNGO
UDALA